

AIAKO XII. ARGAZKI LEHIAKETA

GAIA: *Tunelak eta zubiak, eskailerak eta iturriak.*

Aiakoak izan behar dute eta tokia zehaztuaz, ezaguna ez bada.

PARTEHARTZAILEAK: Lehiaketa honetan parte hartzeko ez dago adin mugarik, baina argazkiak orijinalak izan behar dute, hau da, lehendik argitaratu edota lehiaketetara aurketu gabekoak.

ARGAZKIAK: Partehartzaile bakoitzak gehienez **4 argazki** aurkez ditzake, koloretan edo txuribeltzean izan daitezkeenak. Argazkiak 2016 edo 2017 urteetan ateratakoak izan behar dute. **Pendrive edo CD batean eta argazkietako paperean** aurkeztu behar dira, 30x20zm.tako neurrian eta **formatu horizontalean**. Argazkiak (bakoitzat bere titulua atzean duela) gutunazal batean aurkeztu behar dira eta barnean, partehartzailearen **izen-abizenak, nongoa den, harremanetarako telefono zenbakia, posta elektronikoa, argazkiaren izenburua** eta **ateratako data** jarri beharko dira.

ARGAZKIAK AURKEZTEKO EPE ETA LEKUA: 2017ko irailaren 29rako aurkeztu beharko dira Aiako Kultur Etxean.

SARIAK: 2 sari multzo egongo dira, bat Aian erroldaturikoei zuzendua (deialdi honen aurretik), bestea erroldatu gabekoi zuzendua. Sariak kopuru berdinekoak izango dira eta pertsona batek ezinezkoa izango du sari bat baino gehiago jasotzea:

1. Saria: 180 euro
2. Saria: 150 euro
3. Saria: 100 euro

EPAIMAHAIK: honek aztertuko du lehiaketara aurkeztutako argazkiak kalitate eta gaiari loturiko baldintzak betetzen dituzten ala ez. Onartutako guztiekin erakusketa jarriko da Kultur Etxean, non ikuslegoen botoekin erabakiko dira irabazleak eta 2018ko egutegia osatuko duten argazkiak.

ARGAZKIEN JABETZA ETA ITZULTZEA: Lehiaketara aurkeztutako argazkiak Udalaren esku geratuko dira eta honek erabiltzeko, erreproduzitzeko eta hedatzeko eskubidea izango du egilearen izena aipatuaz.